

Aztergaia: Azpiegitura

DigCompOrg markoaren aztergai honek adierazten du azpiegiturak betetzen duen funtsezko eginkizuna jardunbide berritzaileak ahalbidetu eta errazteko eta [ikaskuntza-inguruneen](#) (fisikoen eta birtualen) mugak zabaltzeko. Hori horrela izanik, malgutasun-eta zabaltasun-dimentsio batzuk edo guztiak hartzen ditu bere baitan (*edozein gizabanako/talde edonon eta edonoiz ikasten, edozein gailu erabiliz, edozein pertsonak emandako aholkulari-zerbitzu batekin*). Erakunde osoa diseinu berritzaile bideratzeak, ikaskuntza-ingurune birtualak eta fisikoak egokitzeak edo berrantolatzeak agerian uzten dute erakundeak ikaskuntza-eremua zabaltzeko jardunbideak modernizatzearen duen bisioa. Garapen horietan zerbitzu digitalen sare nagusiak laguntzen du, eta fidagarria, segurua eta eskalagarria behar du izan.